

HERNANIN ENTZUNA



HERNANIN ENTZUNA

- 1 **AGURRA - 1'29**
Grabazio historikoa. Txirrita Donostian (1918)
- 2 **MARTXA - 1'57**
("Liberalen martxa" edo "2 de Junio")
Moldaketa: Joaquin Ortega "Canario"
- AZERI DANTZA**
- 3 a) **Azeri Dantza** - Herrikoia/Mold: J.J. Iruretagoyena - 3'00
- 4 b) **Sokamuturra** - Herrikoia/Mold: Leon Laspiur - 2'15
- 5 d) **Idiarena** - Herrikoia/Mold: Braulio Zabarte - 3'14
- 6 **NIRE HERRIKO JAIK - 2'00**
(Triku-Triku) - **Isidro Ansorena**
- 7 **SAN JOAN ZORTZIKOA - 4'21**
(Herrikoia)
- 8 **SAN JOAN ERRONDA - 1'41**
- 9 **GIZON DANTZA (Aurrekua)** - Herrikoia - 3'17
 - a) **Aurkez aurke**
 - b) **Banan-banangoa**
 - d) **Agurra**Grabazio historikoa. Isidro Ansorena
- 10 **MENDIRIK MENDI - 3'11**
(Diana) - J.A. Erauskin
- 11 **SAN JOAN ZORTZIKOA - 5'24**
Hitzak: M. Lekuona
Moldaketa: L. Berrondo
- 12 **TOBERAK - 9'45**
Bertsokak: Pablo Zubiarrain "Emani Titkia"
- 13 **OLENZARO - 3'24**
(Gahonetako zortzikoa). - E. Mocoio eta F. Behobide
- 14 **URTE ZAHAR ERRONDA - 1'34**
- 15 **URTE BERRI GOIZA - 2'59**
Joxe Ansorena
- 16 **MARTXA - 3'13**
Moldaketa: Jon Artuzamunoa eta Kerman Perez

Musika elementu nagusietako bat izaten da edozein jaiegunetan, edozein erritualetan; eta Hernaniren kasuak, beste askok bezala, argi erakusten digu nola beste lekuren batetik etorritako doinuak edo hemen bertan sortutakoak, nahiz eta egilearen inolako arrastorik izan ez, herriarenak izatera pasa diren eta gure adierazpen herrikoien ardatz bihurtu diren. San Joan jaietako musika, hain paper funtsezkoa betetzen duena, eta sagarraren eta sagardoaren inguruko txalaparta eta toberak gure artean oso erroturik daude eta interes handia biltzen dute. "HERNANIN ENTZUNA" diskoak doinu horien bilduma bat jasotzen du kronologikoki. Bilduma hori osatzeko, herriari musikaren inguruan lanean ari diren eta aritu izan diren taldeek hartu dute parte. Haien ardura izan da ohitura zaharrei eustea, fidelki gordetzea eta belaualdi berriei erakustea. Izan dadila disko hau ere lan horretan lagungarri.

Hernani, 1999ko maiatza
Joxan Goikoetxea

La música es uno de los elementos principales en cualquier festividad o ritual y el caso de Hernani es otro claro ejemplo de cómo melodías, que habiendo llegado de algún otro lugar o melodías propias pero de cuyo autor no tenemos conocimiento alguno, han pasado a pertenecer al colectivo y a ser uno de los engranajes de nuestras manifestaciones populares. La música en torno a las fiestas de San Juan, en las que juega un papel fundamental, y la txalaparta y tobera en torno a la manzana y la sidra son las que mayor arraigo e interés tienen entre nosotros. "HERNANIN ENTZUNA" propone, en orden cronológico, una recopilación de ellas efectuada por los distintos colectivos que en torno a la música han trabajado y siguen trabajando en el pueblo. En sus manos ha estado la responsabilidad de mantener las costumbres, de preservarlas con fidelidad y de enseñárselas a las nuevas generaciones. Sirva este trabajo también como una aportación a ello.

Hernani, Mayo de 1999
Joxan Goikoetxea



Euse Manuel Lujanbio "Txirrita" (1860-1936), Latxen jaioa, bertsolaritzak eman digun bertsolari garrantzitsuenetako bat da. Umore berezia eta paregabea zuen, eta bere bertsoek eta berari buruz kontatzen diren pasadizo ugariak garai hartako arazo politiko eta sozialen berri ematen digute. Bertsotan noiz eta nola hasi zen Txirritak berak azaltzen digu bere bertsoetako batean, hona:


**Milla zortzirehun hirurogeita
hamalau urte urrian,
lehenengo plazan kantatu nuen
nik Hernaniko lurrian,
San Antonio deitzen diogun
ermita baten aurrian,
lagunak alkar ixtimatuaz
lehenago ohitura zaharrian.**

**...Barriyo gutxi izaten dira
gurea baino alayak...**

Grabazio hau Txirritaren ahotsarekin ezagutzen den bakarra da. 1918an Donostian egindako bertso saio batekoa da. Egun hartan ere, beste askotan bezala, Pello Errota izan zuen aurkez aurke, eta honek irrintzi berezi hau bota zion:

**Jaungoikoaren farolak dira
hilargiya ta eguzkiya,
argitasunak bialdu zigun
lehendabiziko egaztiya.
Denbora haietan usu homen zan
eta orain Donostiya,
gaur dan egunian horren inbiriz
bizi da mundu guztiya.**

**Hara nere lagunak
egin irrintziya,
Zeinek esanda dabil hori
horren hitzontziya.
Orain da portatzeko
komentziya,
ea altzatzen degun,
gure probintziya.**



MARTXA

("Liberalen martxa" edo "2 de Junio")


Ez dakigu zein diren zehatz-mehatz martxa ezagun honen titulua eta egilea, askok "Marcha de Hernani" izenarekin ere ezagutzen dutena. Bigarren Karlistada garaian (1872-1876) garrantzi handiko gertakizuna izan zen Hernaniko Udaletxea lehertarazi zutenekoa, 1875eko irailaren 16an, eta, badirudi, martxa hau, eta Hernaniri dedikatutako beste martxa eta zortziko batzuk ere, garai horretakoak direla, herriak "invicta" titulua jaso zuenekoa, alegia. Ondoko hitz hauen bidez ikus dezakegu zein sentimentuk hultzatzen zituzten garai hartako musikariak horrelakoak idatztera:

Libertade maitea
Bandera santua
Ichu ezquergabeac
Abotan artua
Ez zarade erorico
Egon segurua
Urmeco Inguruan
Zaude Landalua

("Hernaniri" - J.A. Santesteban)

Adineko hernaniar batzuek gogoan dute oraindik nola bandak martxa hau jotzen zuen mendearen hasieran diana modura. Dena dela ere, txarangen bidez zabaldu da batik bat eta, horregatik, doinu honen bi moldaketa ekarri nahi izan ditugu disko honetara, bat hasieran eta bestea bukaeran. Bandaren moldaketa alai eta ospetsuak Hernanira erortzen ziren kanoikaden hotsa deskribatu nahi digu une batean.





AZERI DANTZA

("Atzeri-dantza", "Maskuli-dantza" edo "Maxkuri-dantza")

Auxe da hernaniarrentzat jaietako ekitaldirik berezkoena eta kuttunena. Aita Larramendik, Humboldték, J. I. Izuetak eta Aita Donostiak bildutako dokumentazioaren arabera, badira honen antzeko beste joku-dantzak Isturitz, Lekuntio, Andoain eta Adunán ere, eta, behar bada, Euskal Herri osoan zehar zabaldurik egongo ziren garai batean. Dantza hau inauterietan egiten zen lehen, inauteriak debekatu zituzten arte, eta gero San Joan jaietara pasa zen. Azken mende honetan 15-20 mutilek osatzen dute taldea, buruzagiaren agindutara. Goizeko Betan elkartzen dira herriko kaleetan atzera eta aurrera ibiltzeko. Ezkerreko eskuaz soka bat heltzen dute eta eskubikoan maskuri bat eramaten dute. Soka txistularien doinu doinorik gabe jarraituz abiatzen da, astiro-astiro. Halako baten doinua azkartu eta bizkortu egiten da eta, eredoble soilu anarkikoarekin batera, jendea inguratu eta maskuriarekin jipoitu egiten dute. Hortik aurrera, lasterkak eta zalapartak dira nagusi Herriko kasko zaharreko kale, karkaba, denda, atari, patio eta bazter guztietan. Dantzaren bizitasunak, Axeri izeneko pertsonaje berriagoak, mutilek etxez etxe eta dendaz denda egiten zuten "puska-bilizeak", buruzagiak behar duen trebetasuna, postu hori eskuratzeko irrikiak eta abarrek tradizio hau bultzatu eta sendotu egin dute, eta garai batean haur kanta bihurtzeraino errotu zen herrian:

**AZERI DANTZA TXIBU TXIBULETE
OPIILA JANDA KONKETE TXIBU TXIBULIBU
TXIBULI TXIBULETE.....**

Ansorenatar txistulari ospetsuek "Idiarenak" izenaz ezagutzen diren hainbat doinu gehitu zitzioten dantza honi. Gaur egun ibilbidean zehar jotzen dira beste doinu batzuekin tartekatuta, eta baita dantzaren bukaeran ere. Une horretan mutilek maskuriak lurrean utzi eta, azken akordearekin batera, lebertarazi egin behar dituzte haien gainean salto eginez.

NERE HERRIKO JAIK

(Triku-Triku)

Isidro Ansorena txistulariak (1892-1975) San Joan jaien hasiera zaratatsu eta alaietan jotzeko konposatu zuen bereziki biribilketa eder hau. Ondotik erraldoi eta buru-handien konpartsa ateratzen da.

**Ran ran ran, rakata rakataplan
ran ran ran, rakata rakataplan**

**Martiku, trikuak Martiku zula
arantzak, Martikuri sartu
triku triku triku Martiku.**

**Herri polita neure jaioterria
lili artean goxoro agiri da.**

**Ran ran ran, rakata rakataplan
ran ran ran, rakata rakataplan**

**Rakataplan, trikuak Martiku zula
rakataplan, arantzak Martikuri.
Zelai ederrak, soro zabalak, ibai alaiak ugari
haritz artetik txuri txuria ermita zaigu agiri.**

**Ai ai ai, aufa, herriko jaiak
ohilu ta poza kaletikan,
aufa aufa, fia fia, rakata rakata rakataplan.**

**Ran ran ran, rakata rakataplan
ran ran ran, rakata rakataplan
Gora gure herria !**

SAN JOAN ERRONDA

Herriko festetan atarian, garai batean, Txirrita koplakantari ibiltzen zen. Hernaniko kontu guztiak ederki jakiten zituzten bi laguntzaileekin, ez zen Latzeko bertsolariak dantzatzen ez zuen gairik. Maldaburuk, soinuarekin doinu bat jo ostean eta Txirrita bertsokoplatan hasi orduko, jendea hurbiltzen zitzairen, ingurumaira jakinminez. Egun usadio hura aintzakotzat hartuz, San Joan bezperan, ohitura da esku soinu eta bertsolarien laguntzaz, herriko kaleetan zehar San Joan bezperan koadrila bat kantari iritea.



GIZON DANTZA (Aurreksua)

Isidro Ansorena, Hernaniri eta txistuari hain loturik dagoen familia famatu horren kidea, izan zen txistua maila goreneraino eraman zuena. Hernaniko Udalarentzat lan egin zuen hamabi urtez. Donostiako udal bandako danbolinjole lehena izatera pasa zen arte. Grabazio historiko hau hogelko hamarkadako da, Regal-Columbia etxea Donostian ezarri zen garaikoa, eta bertan Isidro handiaren iaioatasuna eta taldearen maila artistikoa agerian gelditzen dira Gizon Dantza eta Agurra suaren aurrean jotzerakoan. San Joan bezperako Aurreksuak dantzari apartak izan ditu beti eta oso errotua dago herritarren artean.

SAN JOAN ZORTZIKOA

San Joan egun goizean jotzen da diana modura biribilketa alai hau. Doinu hungikarria eta maitea da oso hernaniarrentzat, eta urtetik urtera jende gehiago hurbiltzen da entzuterara.

**Goazen Mendirik mendi euskaldun gazteak.
Goazen aldapa gora mendi goizaleak.
Haize osasuntzuaz bititza indartzera,
Aberri guztiari agurra egitera!**

**Goazen goazen guztiok kalera
San Joan eguna denok ospatzera,
goiz kantu alai eder honekin
Hernani herrian goatzera!**



SAN JOAN ZORTZIKOA

Gipuzkoako dantza zahar hau Sanjoanetako izpirituaren muin bilakatu da denboraren poderioz. Herriko jaietako ekitaldi nagusien ardatz musikal bihurtu da, ekitaldi nagusietan jotzen dena, hau da, bandera igotzean, aurreksuan, errondan, salbean, elizako funtzioetan, eta bandera jaistean. 1956an Manuel Lekuonak behean agertzen diren hitz hauek idatzi zituen San Joan Bataiatzailearen parrokiak espreski eskatuta. Ordutik aurrera parrokiko abesbatzak testu hori kantatzen du eta, 1963. urteaz geroztik, hau da, Joxe Ansorenak abeslariak txistuaz lehen aldiiz lagundu zituenetik, txistulariek parrokiaren egiten diren funtzioetan parte hartzen dute San Joan bezperan eta San Joan egunean.

...non surrexit maior....

Jesus'en Amaren
iloba txiki;
Jesus'en beraren
lengusu...
Jaio diran, eta
jaiotzekotan
iñor berdiñikan
ez duzu...
Ta San Juan!
beti etorri eta joan;
bai, San Juan,
beti zaitut gogoan.

Jaiotzea baño leen
Santu ziñan;
Jesus'ek berak
santu zindun...
Ez zeru goietan,
ez lur onetan
ez dezu berdiñik
zuk iñun...
Ta San Juan!...

Basamortuetan
txikitandikan,
basoko ezitia
janari;
laztasun gogorak
gorputzarentzat;
orduri onenak
Jaunari...
Ta San Juan!...

Basamortutikan
etorri ziñan
Jordan-ihaiaren
ertzero;
iñork etzuana
zuk egin zendun:
bataiatu jauna
ber-bera...
Ta San Juan!...

Ernani Erriak
zaindari zaitu
Jaungoikoak daki
noiztikan.
Zuk zaindu gaitzazu
ernaniarrok
bizi geran zeru
goitikan

Donostia-Urumealdean, Hernanin eta Astigarragan bildutako toberaren tradizioa, txalapartaren tradizioa bezala, sagarra auzolanean biltzeko eta sagardoa egiteko garaia iri loturik dago. Osiñaga eta Portu auzoko sagardotegiek horrelako jar asko ezagutu dituzte. Jai horietan koplak, bertsoak, irrintziak eta dantzak izaten ziren toberen aurretik. Toberajolerik ezagunenak Kaxiano Zubeldia Elizegi (1880-1949) eta haren seme J. Joakin Zubeldia Egaña (1910-1983) izan ziren. Kantatzen ziren koplak artean bada bai gaur arte iritsi dena eta, bertso desberdinetan, Oiartzun eta Lesaka inguruan ere kantatzen zena, ondoko hau:

**San Martin de las Monjas,
Monjas de San Martin,
tobera jo dezagun
ordu onarekin,
ordu onarekin ta
Birjin amarekin.**

Grabazio honetan jasotzen diren bertsoak Pablo Zubiarrain bertsolariak kantatu zituen "Tolarea" sagardo kofradia ohorezko kofradia kide izendatzeko egin zion omenaldian. Toberen giroa eta aipatutako toberajoleak ezagutu zituen, eta sagardoa du, hain zuzen ere, kantagai joandako garai haren kiko malenkonia islatzen duten bertso hauetan. Telleri baserrian jaio zen 1911. urtean, eta "Ernani Titkia" eta "Pablo Titkia" izengoitiek in ezaguna da. Zer esan ugari du, bertsolari belaualdi desberdinekin kantatzeko ohorea izan duelako. Hogeiko hamarkadan hasi zen bertsotan Txirrita, Saiburu, Frantzes Txikia eta Tianttuarekin. Gero Basarri, Uztapide eta Zepairekin ibili zen eta, ondoren, Mitxelena, Lasarte, Lizaso eta Arozamenarekin. Gaur egun plazatik erretiratua egon arren, osasunez ezin hobeki dagoenez, egin zaizkion hainbat omenalditan kantatu izan du, arestian esandakoan, besteak beste.



OLENZARO

Mocoroa eta Behobide tolosarrek konposatutako zortziko hau Gabon eguneko erronda hunkigarrian jotzen du musika bandak. Tolosan ere jotzen da egun horretan bertan.

URTE BERRI GOIZA

Exe Ansorenak (1886-1983) konposatu zuen Urte Berriko dianan jotzen den biribilketa hau. Egun horretan udaleko txistulari bandak ibilbidea aldatu eta "Leokadisti"n bukatzeko ohitura du, Joxe Ansorena bizi izandako etxean, itzal handiko txistulari honen oroimenez, Hernaniko udal txistulari izan baitzen 55 urtez.

URTE ZAHAR ERRONDA

Laurogeigarren hamarkadaren hasieran, emakume zein gizaseme koadrila bat bildu zen, bertso, kopla eta trikiti doinuaz, bereak eta bi emanak zituen urteari agur esateko asmoz. Ordutik gaurdaino, abenduaren azken egunean, 31n, herriko karrikak, bertsolarien ateraldi eta urtea agurtzen duen kopla lagun, aldarte giroan, Hernaniko hamaika bazter alaitzen ahalegintzen dira.



HERNANIKO MUSIKA BANDA (7, 10, 11, 13 eta 16)

Zuzendaria: Manuel Sagarra Goiburu

Severino Vázquez, Loraine Lekuona, Xabi Izagirre, Martin Perona, Pedro Majón, Félix Lera, Luis Berrondo, Rafael García, Ainara Garin, Itziar Baro, Judith Montero, Alfredo Diaz, Cipri Otxandorena, Roberto Pacheco, Fidel Gomez, Miguel Mari Lizarza, José Molina, José Luis Fernandez, Florentino Martín, Axier Lizarza, Iñigo Aldasoro, Abel Perona, José Angel Redondo, Damaso Usabiaga, Kerman Perez, Laura Pacheco, Francisco Erausquin, Endika Zubeldia, Jorge Pacheco, Miguel Goiburu, Pedro Cacamó, Santiago Caballero, Esther Goiburu, Izaskun Alonso, Bauti Cuenca, Edgar Carbajo, Arkaitz Otegi, Joseba Aldasoro, Sergio Carbajo, Iñaki Insausti, Aitor Gastón.

"HERNANIKO OHITURA ZAHARRAK" ABESBATZA (8 eta 14)

Juan Mari Jalon, Antonio Insausti, Manuel Rekalde, Xabier Etxeberria, Joxe Mari Tomasena, Jose Ramon Beroitz, Joxeba Laburu, Andoni Lizeaga, Joxe Ramon Zabala.

"HERNANI" MUSIKA ESKOLAKO ABESBATZA (6, 10 eta 11)

Zuzendaria: Garbiñe Orbegozo Senperena

Julen Aldabe, Izarne Artola, Eider Balerdi, Maitane Barrenetxea, Garazi Castelar, Lore Etxeberria, Nora Fuentes, Nabila Garin, Garazi Garmendia, Lide Goia, Maialen Gonzalez, Ohiane Gonzalez, Nagore Goñi, Leire Goñi Iradi, Leire Goñi Irazustabarrena, Amagoia Insausti, Manex Irazu, Oihana Iturralde, Ainhoa Larburu, Itxaso Lekuona, Itziar Marin, Miren Andone Marin, Ainhoa Oiarbide, Eider Oiarbide, Iratxe Ollo, Itxaso Pacheco, Itxaso Rodriguez, Oihane Sanz, Adrian Talavera, Sandra Tellez, Leire Torres, Leire Ugalde, Naiara Santzacruz, Arantza Alberdi, Amaia Gargallo, Maribel Insausti, Lurdes Alkorta, Iñaki Eguren, Joseba Aldasoro.

"TXINTXARRI" ABESBATZA (6, 10 eta 11)

Zuzendaria: Garbiñe Orbegozo Senperena

Xabier Mingo, Xefe Balerdi, Jon Aizpurua, Joxe Mari Balerdi, Juanxto Aranburu, Arturo Leo, Miguel Mari Arabaolaza, Juan Jesus Zarrabeitia, Mila Begiristain, Garbiñe Iriarte, Jaione Zubillaga, Izaskun Lopetegi eta Elena Alustiza.



HERNANI TA INGURUKO TXISTULARIAK (3, 4, 5, 6, 10, 11 eta 15)

Zuzendaria: Patsi Apeztexea Agirre

Haritz Ezeiza, Xabier Irizar, Patricia Arocena, Miren Lizaso, Imanol Beroitz, Nerea Frutos, Maialen Belategi, Olga Mugerza, Izaskun Miner, Garbiñe Tijero, Jesús Mari Gutiérrez, Mari Jose Gaztelumendi, Ruth Martín, Igor Garmendia, Miel Joxe Astarbe, Eva Igariz, Ramón Iriarte, Antonio Insausti, Iñaki Eguren, Julen Larrarte, Arantzazu Garmendia, Joseba Aldasoro.

ELIZ PARROKIKO ABESBATZA (10 eta 11)

Zuzendaria: Juan Jose Arregi Barandiaran

Alfredo Azkue, Andoni Unanue, Andoni Zugasti, Jose Martín, Tomas Garmendia, Xabier Etxeberria, Jose Ramon Beroiz, Miguel Lucas, Ines Sarasua, Josefa Ortega, M^o Dolores Arruti, Rosa Ormaetxea, M^o Asun Casado, Arantxa Iparragirre, Iuani Lucas, Lupe Azpiazu, Begoña Errasti, M^o Dolores Esnaola, M^o Jose Alzuri, M^o Jesus Azkue.

KANTUZ ABESBATZA (10 eta 11)

AZERI DANTZA TALDEA (3 eta 5)

Pako Zabaleta, Igor Otxotorena, Juan Gabriel García de Vicuña, Jon Alejos, Jon Corbella.

METALEZKO BOSKOTEA (6)

Antxon Romero, Vicente Tarrega, Axier Lizarza, Kerman Perez, Joaquin Ortega "Canario".

INCANSABLES TXARANGA (2)

Juan Mari Zabaleta, Mikel Roperio, Igor Ruiz, Eugenio Delgado, Tomás Lazkano, Aitor Troitino, Jesús Mari Moneo, Alberto Almendro, Abon Mendibil, Joaquin Ortega "Canario".

TOBERAK (12)

Endika Zubeldia, Jose Angel Redondo.





AGURRA

Jose Manuel Lujambio "Txirrita" (1860-1936). Nacido en Latxe, es una de las principales figuras que nos ha dado el bertsolarismo. Su peculiar e inigualable sentido del humor, así manifestado a través de sus berisos, y las numerosas andanzas que de él se cuentan son hoy, una crónica social y política de la época que vivió. Cuenta en uno de sus versos como empezó a cantar. Esta grabación es la única conocida de su voz y pertenece a una sesión que tuvo lugar en Donostia en 1918, en la que "Pello Errota", habitualmente su rival, le lanza este peculiar irintzi.

MARTXA ("Liberalen martxa" o "2 de Junio")

No conocemos con exactitud el título y el autor de esta célebre marcha incluso conocida con el nombre de "Marcha de Hernani". En el contexto de la 2ª guerra carlista (1872-1876), episodio destacado supone la voladura de la Casa Consistorial heraniarra el 16 de Septiembre de 1875. Parece que esta marcha, al igual que otras marchas y zortzikos dedicadas a Hernani, datan de esta época; momento en el que igualmente se le concede el título de "invicta". La letra de uno de ellos nos puede ayudar a imaginar los sentimientos que impulsaban a los músicos de entonces a escribirlas: Algunos mayores recuerdan cómo a principios de siglo la banda de música interpretaba esta marcha a modo de diana. De todas las maneras han sido las txarangas las que más han popularizado esta melodía y por ello hemos querido reflejar dos arreglos distintos de la misma abriendo y cerrando el disco. El jovial y pomposo arreglo de la Banda de Hernani pretende describirnos en un momento los cañonazos que caían sobre Hernani!

AZERI DANTZA ("Atzeri-dantza", "Maskuli-dantza" o "Maxkuri-dantza")

Considerada por los heraniarras como uno de los actos más propios y exclusivos de las fiestas. Existe documentación a cargo de Aita Larramendi, Humboldt, J.I. Itzuetza o el Padre Donostia que recogen distintas manifestaciones en Ustaritz, Lekeitio, Andoain o Aduna de juegos-danzas de este tipo y que en un tiempo pudieron estar más extendidas en Euskal Herria. Esta manifestación ligada siempre a los carnavales hasta su prohibición y pasada posteriormente a los San Juanes, conoce en este último siglo la siguiente configuración: Un grupo de 15 a 20 hombres que dirigidos por el "buruzagi" se reúnen a las 8 de la mañana para recorrer las calles del pueblo agarrados a una soga con la mano izquierda y con unos "maxkuris" (vejigas hinchadas) en su mano derecha. La cuerda empieza a andar al son de la música de los txistularis que interpretan esta melodía en un modo lento y majestuoso. La melodía adquiere un ritmo rápido y violento en el momento en que la cuerda empieza a golpear al público acompañando al txistu con un anarquico redoble. Las carreras por las calles, la configuración urbanística del casco antiguo de Hernani con sus cárabas, tiendas, portales y patios con dobles entradas, balcones bajos, el axeri, personaje que se ha incorporado más recientemente, los "presentes" con que se obsequiaba a los mozos a su paso por las casas o tiendas, el puesto codiciado y las habilidades a reunir por el buruzagi, etc... han alimentado esta tradición que incluso en un tiempo llegó a ser tan popular que se convirtió en canción infantil:

AZERI DANTZA TXIBU TXIBULETE

OPILA JANDA KONKETE TXIBU TXIBULIBU TXIBULI TXIBULETE.....

Los ilustres txistularis Ansorena incorporaron distintas melodías conocidas como "Idiarenas" a esta danza que actualmente se ejecutan intercaladas durante el recorrido y al final, momento en que los mozos dejan los "maxkuris" en el suelo para saltar sobre ellos y hacerlos reventar coincidiendo con el acorde final.

NERE HERRIKO JAIAK (Triku-Triku)

Brillante biribilketa compuesta por el ilustre Isidro Ansorena (1892-1975) expresamente para el inicio de las fiestas de San Juan, momento en el que se mezcla el bullicio y la alegría dando paso a la comparsa de Gigantes y Cabezudos.

SAN JOAN ERRONDA

En la antesala a las fiestas, el bertsolari Txirrita se dedicaba a cantar coplas con un par de colaboradores que conocían los entresijos del pueblo; no había tema que se le quedara en el tintero al bertsolari de Latxe. Acompañado por el acordeonista Maldaburuenseguida conseguía reunir a un buen número de gente alrededor suyo. Hoy en día y queriendo mantener viva aquella tradición, una cuadrilla sale a cantar a las calles la víspera de San Juan acompañado de acordeonistas y bertsolaris.

GIZON DANTZA (Aurresku)

Isidro Ansorena miembro de esta ilustre familia ligada a Hernani y al txistu es el que elevó este instrumento al rango más alto. Prestó sus servicios al ayuntamiento de Hernani durante 12 años hasta que pasó a ser tamborilero primero en la banda municipal de Donostia. Esta grabación histórica data de los años veinte en los que la casa Regal-Columbia se instala en Donostia. Queda patente el nivel artístico del grupo y el virtuosismo del gran Isidro en la interpretación del solemne aurresku y agurra que suena la víspera de San Juan ante el fuego de la hoguera y que siempre ha gozado de enorme arraigo en el pueblo y de ilustres dantzaris que lo han bailado.

MENDIRIK MENDI

Esta entrañable bibilketeta halla su lugar en la mañana de San Juan. Una alegre melodía la de esta diana que goza de enorme popularidad entre los hernaniarras y a la que viene observándose en los últimos años una creciente asistencia.

SAN JOAN ZORTIZKOA

Esta antigua danza guipuzcoana es la que con el paso del tiempo se ha convertido en el reflejo del profundo sentir del espíritu de los "Sanjoanes". Es el eje musical en todos los actos solemnes que caracterizan las fiestas patronales: la izada, el aurresku, la ronda, la Salve, los actos religiosos, y la arriada. En 1956 Don Manuel Lekuona escribió la siguiente letra por encargo expreso de la Parroquia de San Juan Bautista. A partir de ahí el coro parroquial ha cantado el texto y desde 1963, año en que Joxe Ansorena lo acompañó por primera vez al txistu, los txistularis han participado en el acto que se realiza en la parroquia la víspera y el día de San Juan.

TOBERAK

La tradición de las toberas, al igual que la txalaparta, recogida sobre todo en la zona de Donostia-Urumealdea, Hernani o Astigarraga, está ligada a los festejos que se realizaban en la época de la recogida de la manzana en "auzolan" y de la "fabricación" de la sidra. Las sidrerías del barrio de Oñañaga y del Puerto han conocido numerosas de estas fiestas en las que las toberas precedían a las coplas, berrios, irrintzis y danzas. Como principal figura de toberajole cabe reseñar a Kaxiano Zubeldia Elizegi (1880-1949) y su hijo I. Joakin Zubeldia Egaña (1910-1983). Hasta nuestros días ha llegado una copla que, en versiones diferentes, se cantaba también en la zona de Oiartzun y Lesaka:

Uno de los bertolaris que conoció esta época y a estos toberajoles es Pablo Zubiarrain, del caserío Telleri y nacido en 1911. La figura de "Ernani Titikia" o "Pablo Titikia", como se le conoce, es especialmente interesante ya que él ha tenido el privilegio de haber cantado con diversas generaciones de bertolaris. Empezó en la década de los veinte con Txirrita, Saiburua, Frantzes Txikia o Tlanitua. Posteriormente cantó con Basarri, Uztapide o Zepai. Más tarde con Mixelena, Lasarte, Lizaso o Arozamena y aunque actualmente está retirado de las plazas su inmejorable estado le permite cantar en distintos actos con los que se le ha rendido merecido homenaje. Precisamente en uno de ellos, la cofradía de la sidra "Tolarea" le nombró cofrade de honor cantando en dicho acto los bertos que se recogen en esta grabación y que están dedicados a la sidra y a la nostalgia por esta "época" a la que hacíamos alusión.

OIENZARO

Compuesto por los tolosarras Mocoioa y Behobide supone otro momento entrañable, el de la ronda que realiza la Banda de música el día de Nochebuena; zortziko también interpretado este mismo día en Tolosa.

URTE ZAHAR ERRONDA

Al principio de la década de los ochenta se formó este grupo que ayudado por trikitalaris y bertolaris pretendía despedir al año. Hasta hoy se mantiene esta costumbre que pretende alegrar las calles mediante coplas que comentan los avatares del año que muere y desear lo mejor para el venidero.

URTE BERRI GOIZA

Bibilketeta compuesta por Joxe Ansorena (1886-1983), toda una institución del txistu en Hernani donde ejerció como txistulari municipal durante 55 años. Esta melodía se ejecuta en la diana del día de Año Nuevo, día en el que la Banda de Txistularis tiene por costumbre, cambiando su recorrido habitual acabar su recorrido en "Leokadisti", casa en la que vivió Joxe Ansorena.

AMASAKO IZ ESTUDIOETAN GRABATUA ETA NAHASTUA 1999ko MAIATZEAN

SOINU TEKNIKARIA: MIKEL FERNANDEZ

PRODUKZIO ARTISTIKOAK: JOXAN GOIKOETXEA

DOKUMENTAZIOA: Hernaniko Udal Artxiboa - JESUS M^o GOMEZ.

TESTUAK: JOXAN GOIKOETXEA

ARGAZKIAK: FOTO BIYOK - LUIS LLOPIS
HERNANIKO UDAL ARTXIBOA
XABIER IRIARTE
MIKEL RUIZ
HERRI MUSIKAREN TXOKOA - JUAN M^o BELTRAN
ENDIKA ZUBELDIA
ION ODRIOZOLA
SEGUNDO ALEJOS
PATXI APEZETXEA

AZALEKO ARGAZKIA: EZKIAGA PASEALEKUA 1894

DISEINUA: ARANTZAZU RUIZ

EUSKARARAKO ITZULPENA: MARGA ARISTIZABAL ("San Joan Erronda" eta "Urte Zahar Erronda" izan eziki).

ERRONDETAKO BERTSOAK: IOXE LUIS URDANGARIN

ERABILITAKO GRABAZIOAK: 1989ko Sanjoanak - Xabier Iriarte
Txirrita - ERESBIL
Isidro Ansorena - BMG ARIOLA

Mila esker grabazio honetan parte hartu duten guztiei eta bereziki beren laguntza paregabea eman duten hauei: IZ Diskoetxea, Fernando Unsain, Mikel Fernandez, Juan M^o Beltran, Joaquín Ortega "Canario", Jon Bagües-Eresbil, Koldo Tapia-Bertsolari Elkarte, Xabier Iriarte, Jon Odriozola, Pablo Zubiarain "Ernani Tiikia", Endika Zubeldia, Garbiñe Orbegozo, Cipri Otxandorena, Ansa autobusak, Sagastiberri erretegia, Foto Biyok, Antza Inprimategia, Imanol Cerra, Arantzasu Ruiz, Peio Zubiria, Xabier Etxeberria, Ignacio Mariñ-BMG Ariola, Juanjo Uriá, Imanol Larretxea, Segundo Alejos, Patxi Apezetxea, Alegiko "Txintxarri" abesbatza, Jesus M^o Gomez eta Marga Aristizabal.



HERNANIARRREN KANTU, DANTZA ETA HOTSAK

1 AGURRA

2 MARTXA

AZERI DANTZA

3 a) Azeri Dantza

4 b) Sokamuturra

5 d) Idiarena

6 NIRE HERRIKO JAIK

7 SAN JOAN ZORTZIKOA

8 SAN JOAN ERRONDA

9 GIZON DANTZA (Aureskua)

a) Aurkez aurke

b) Banan-banangoa

d) Agurra

10 MENDIRIK MENDI

11 SAN JOAN ZORTZIKOA

12 TOBERAK

13 OLENZARO

14 URTE ZAHAR ERRONDA

15 URTE BERRI GOIZA

16 MARTXA



Argitaldaria: KEA

IZ-517-KD

L.G. D-520/99



© HERNANIKO UDALA

HERNANIKO UDALA

HERNANIN ENTZUNA
IZ-517-KD

HERNANIN ENTZUNA
IZ-517-KD